

Pankreas, ikastetxeetan didaktikoki landu ostean eta Korrika Kulturalaren barruan, Oñatiko Santa Ana antzokian ikusgai.

Korrika martxoaren 23an heltzen da Oñatira.

Ekitaldia girotzeko, Korrika Kulturalaren barruan, Martxoaren 13an, ostirala, Pankreas Tartean Teatro antzerki konpainiaren azken emaitza ikusteko aukera izango dugu Oñatiko Santa Ana antzokian, 22:30etatik aurrera.

Pankreas Patxo Telleriak sortutako endreduzko tragikomedia bat da, bertsotan idatzia. Hiru aktore ezagun taula gainean: Joseba Apaolaza, Mikel Martinez eta Patxo Telleria bera.

Jabilo oso gaixo dago, Pankreas baten transplantea behar du, azkar gainera, bestela hil egingo da. Afari batean Jonan-ek Paul-i suizidatzea proposatuko dio, Jabilori bere Pankreasa donatzeko...

Oñatiko Ikastetxeetan batxilerreko ikasleekin suizidioaren gaia lantzeko ere erabili dute Pankreas, horretarako propio prestatutako material didaktikoa erabili dutelarik. Ondoren nola ez, aukera izango dute ordutegi librean eskainiko den emanaldira gerturatzeko, ikasleen artean antzerkigintzarako zaletasuna eta euskal kultur produkzioaren kontsumoa sustatuz aldi berean.

Udalaren Kultura eta Hezkuntza sailak eta Oñatiko ikastetxeak bigarren urtez elkarlanean gauzatutako egitasmoa dugu antzerkigintzaren lanketa didaktikoa, azken urteetan Udalaren eta ikastetxeen artean josten diharduten elkarlaneko dinamikaren barruan.